

## **SAILKAPENA**

### **2.4 Taldean nola sentitzen garen lantzeko dinamikak**

#### **IZENA ETA ZENBAKIA:**

Militantziaren gazi-gozoak

#### **HELBURUA:**

Norberaren militantziaren inguruko gogoeta pertsonal zein kolektiboa jorratzea, militantziaren alde positiboak eta negatiboak aztertzearen bidez.

#### **DENBORA:**

Ordu t'erdi/ 2 ordu

#### **LEKUA:**

Garrantzitsua da, leku zabala beharko dugu.

#### **TALDEAREN BALDINTZAK**

Pertsona kopurua: 10 eta 40 kide artekoa, egokiena.

Taldearen egoera: Ezezagun zein ezagunen artean egin daiteke. Ezagunak izanez gero sakontasunean irabaziko dugu.

#### **AZALPENA:**

Ariketak bi atal ditu. Lehengoa, talde txikitan; bigarrena, plenarioan.

1. atala. Lehenik eta behin, bakarka iraganaren errepassoa egin.

Bakarka, militantziaren gazi gozoak jasoko ditugu fitxa batean. Ondoren, bakoitzaren bizipen eta sentimenduetatik abiatu den hausnarketa, talde txikian partekatuko dugu. Bukatzeko, taldeka bi galdera hauek erantzungo ditugu (1-Zeintzuk dira mantendu edo indartu nahi ditugun elementuak? 2-Zer da gaur egun aldatu edo saihestu nahi duguna?) eta galdera bakoitzetik gutxienez hiru elementu adostu/lehenetsi beharko ditugu (eta papertxotan idatzi).

2. atala. Talde txikietan erantzun ditugun hiru galderetan adostutako elementuak komunean jarriko ditugu eta horma paper batean itsatsiko ditugu. Azalpenerako guztira 10 min ditugu eta ondoren eztabaidarako tarte irekita utziko dugu.

#### **OHARRAK:**

Lehenengo atalak ez du dinamizaziorik behar. Bigarrenak bai, eta komeni da aldeaz aurretik beste galdera posible batzuk prestatzea.

**MATERIALA:**

Paperak eta boligrafoak

**ITURRIA:**

Joxemi Zumalabe